



DIRU SARRERAK

HASIERAN

Bazkideen kapitala

Sozietate anonimo bat sortzeko gutxieneko kapitala 60.000 eurokoa da. Beraz, 4 lagun garenez, bakoitzak 15.000 euroko ekarpena egingo du. Hasierako inbertsioa osatzeko kapitalaz gain kanpo finantziaketara jo beharko dugu mailegu bat eskatuz.

Unibertsitatean geundenean, ekimen hau aurrera eramanez ahal izateko ideia genuen eta lan egiten egon ginen beharrezko aurrezkiak lortu ahal izateko. Beraz, ikasle moduan egon ginen denboraldi horretan aurrezteko aukera izan genuen.

Hau da, emandako soldatetatik lortutako erdia baino gehiago aurrezten genuen eta beste diru kantitatea gure gastuetarako erabiltzen genuen. Datu hauek kontuan izanda, lau urtetan bost mila euroko aurrezkiak lortu egin dugu. Hala ere, kantitate hori ez da nahikoa sozietate anonimo bat sortzeko kapitala ordaintzeko.

Kanpo Finantziaketa

Mailegu bat behar izango dugu gure aurrezkiak ez direlako hain altuak eta orduan sozietate moduan, bankuari 150.000 euroko mailegua eskatu diogu, mailegu-hartzaileak bihurtzen, eta horrela gure proiektua aurrera eramateko ahalmena izateko.



Denbora pasa ahala, bankuari dirua bueltatuko diogu, gure kasuan, kalkuluak egiten, 20 urteko tartea beharko dugu kreditua ordaintzeko. %2ko interesa izango dugu, eta pentsatuta daukagu sozietatearekin lortuko dugun diruarekin ordaintzea.

Gainera Leioako Udala, ekintza soziala sortu nahi dugunez eta neska ekintzaileak eta gazteak garenez, diru laguntzak eskainiko digute. Noski, diru laguntzak erabiliko ditugu, horrela mailegua eta diru laguntzekin batera, gure sozietatea martxan jartzeko beharrezko finantza baliabideak izango ditugu.

MARTXAN DAGOENEAN



Gure proiektua martxan dagoenean, gure bezeroei eskainitako zerbitzuetatik dirua lortuko dugu. Gure asmoa, beste askotan esan dugun bezala, ez da zenbat eta gehiago dirua lortzea, baizik eta gure bezeroak benetan laguntzea eta haien bizitza hobetzeko aukera ematea, baina azkenean enpresa bat da eta dirua lortzea ere sartzen da gure helburuen barruan.

Gure zerbitzua kontratatzean 150€ kuota bat ordaindu beharko dute eta behin kudeaketa eginda, pisu bakoitzetik hilero beste 300€ kuota bat jasoko dugu. Gastu hori 2 edo 3 aiton-amonen artean banatuta zahar etxe bat ordaintzea baino askoz merkeagoa izango da. Horrela, gure proiektua arrakastatsua bihurtuko da poliki poliki.



Lehenengo hilabetean estimazio txikia izango dugu, hau da, saiatuko gara hasteko 2 etxebizitza hilero gutxi gora-behera lortzen. Horrela urte batean 24 etxebizitza izango ditugu gutxienez. Hortik aurrera gure asmoa sozietatea handitzea da.